

11. PRAKTIKA

Zereginaren izenburua: prestakuntza diseinu bat eraikitzea

Zeregin mota: prozedurazkoa. Arazoa: testuinguru jakin baterako prestakuntza diseinuak sortzea.

Praktika hau ikus-entzunezko *The Wire*, 4. denboraldiko (David Simon eta Ed Burns, 2006) telesailean oinarritzen da.

Telesailean derrigorrezko bigarren hezkuntzako zentro bat ikusten da, arazoak dituzten gazteak bertaratzen diren auzo gatazkatsu batean kokatua. Bertara irakasle berri bat doa (Pryzbylewski) eta hasiera batean zailtasunak izan arren, gutxika ikasleekiko harremana eta ikaskuntza bideratzeko metodologiak egokitzen hasten da.

Beraz, testuinguru horretarako eta irakasle-talde horretarako prestakuntza-diseinu bat proposatu behar duzu. Prestakuntzaren gaia irakaskuntzarako metodo aktibo bat izan liteke (ikaskuntza kooperatiboa, gamifikazioa, Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza...) edo irakasle horien prestakuntzarako interesgarria izan daitekeen beste edozein gai. Aukeratzen duzun gaia justifikatu behar duzu.

Dena den, prestakuntza-proposamen hau egiteko beste testuinguru bat aukera daiteke, betiere deskribatzen eta justifikatzen bada. **Esaterako "Gaur hasten da dena"** (Bertrand Tavernier, 1999) filma testuinguru gisa ere erabil daiteke.

Zer egin?

Aurreko guztia kontutan hartuta, zentro horretako irakasle-taldearentzako prestakuntza diseinu baten proposamena egin. Ondorengo elementuak proposamenean aipatu eta landu behar dira:

- Testuingurua deskribatu
- Partaideak zehaztu
- Prestakuntzaren helburuak formulatu
- Gaitasunak eta Ikaskuntza emaitzak idatzi
- Edukiak hautatu eta sekuentziatu
- Prestakuntza modalitatea aukeratu
- Estrategia metodologikoa deskribatu
- Prestakuntza teknikak azaldu
- Prestakuntza saioen hurrenkera eta jarduerak deskribatu
- Baliabideak aukeratu
- Eszenatokia antolatu
- Ebaluazioa zehazki azaldu
- Erreferentzi bibliografikoak zuzen aipatu

ERANTZUNA

Jarraian ematen den erantzuna orientagarria baino ez da. Ez dago erantzun bakarra

IRAKASLEEI ZUZENDUTAKO PRESTAKUNTZA DISEINUA

The Wire telesailetik hartutako ikus-entzunezko zati batzuetan oinarrituko naiz. Zortzi hartualditan banatuta dago eta bakoitzak ikaskuntza prozesuaren elementu desberdinak erakusten ditu. *The Wire* telesaileko testuinguruan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxea dugu.

Egoera hobeto ulertzeko, testuinguruaren parte diren kultura eta klima zehazten saiatuko gara. Izan ere, prestatzaileok testuinguruaren arabera diseinu formatiboa eraikiko baitugu. Telesailean ikusi dugun ikastetxearen kultura interpretatzeko 3 maila bereiziko dira.

1. mailan, behagarriak diren elementuetan, zentroak espazio eta gela zabalak dituela antzematen da, altzairuak nahiko zaharrak dira eta kolore eta apaingarri gutxi daude, ez dago gailu teknologikorik, ikasleek uniformeak janzten dute eta jarrera gatazkatsua adierazten dute.

2. mailan, portaera gidatzen dituzten balioak aztertzean, ikasleen ikasteko motibazio eskasa nabarmentzen da. Informazio hori irakasleen eta ikasleen arteko elkarriketen bidez jasotzen da. Horren aurrean irakasleek adierazten duten jarrera autoritarioa da.

3. mailan, sinesmenak behatzerakoan, irakasleen nekea eta zuzendaritzak adierazten duen itxaropen falta gailentzen da. Ikastetxeak ez du inolako nortasun-sentimendurik erakusten eta gelan eta klaustroan ez dago kidetasun sentimendurik.

Ikusi dugun ikus entzunezkoa Amerikako Estatu Batuetako Maryland estatuan kokatzen da, hain zuzen ere, Baltimoreko hirian. Hiria zonaldearen arabera banatzen da, ikasleak mendebaldekoak izanik. Eskolak zonaldearen testuingurua islatzen digu. Ikasle guztiak, baita irakasle gehienak ere, komunitate afroamerikarraren parte dira. Ikasleek adierazten dituzten jarrera batzuei esker, auzoan kriminalitate kasuak askotan ematen direla jakin dezakegu, adibidez, ikasle batek itxita dagoen kotxea zailtasunik gabe irekitzen duenean.

Ikastetxearen helburua eta balioa ikas-irakastea da. Ikasleek, ordea, derrigortuta doazela ematen du, inolako helbururik gabe. Balio pertsonalak eta antolakuntzarenak bat etortzea garrantzitsua da, beraz, ikasleek ikasi nahi izatea lortu beharko da.

Ikastetxeko kultura klima baino egonkorragoa da, aldatzeko zailagoa. Ikastetxeko klima, aldiz, denbora gutxiagoan aldatzeko erraztasun handiagoa dauka. Klimaren barruan, aurretik aipatu diren ikastetxeko baldintza fisikoak eta ikasleen jarrerak aztertzen dira, kultura interpretatzeko 1. eta 2. maila lotura duena.

Era berean, eskolako langileen lanpostuen diseinua eta zereginak ondo zehaztea beharrezkoa ikusten da. Alderdi objektibo hauez gain, osagai subjektiboak aztertu

daitezke, esate baterako, ikasleen pasibotasuna, irakasleen kontrol nahia eta agente guztien arteko komunikazio txarra. Dena den, eskola honetan alderdi horiek aldatzea oso zaila dela ematen du, eta klimaren barruan egon beharrean, kulturaren parte bihurtu direla ematen du. Bestetik, ikasleek adierazten duten motibazio falta eta jarrera gatazkatsua, eskola testuinguruan baita familia testuinguruan izan ditzaketen arazoan ondorio dira, beraz, kulturaren eta auzoaren parte dira.

Diseinuaren helburuak

Diseinua prestatzeko, lehenengo eta behin, helburuak finkatu dira. Diseinu honen xedea ikasleengan gaitasun batzuk garatzea izango da. Aldi berean, irakasleen formakuntzan hutsuneak identifikatzea, beste metodoekin konparatzea eta hobetzeko bideak bilatzea dira. Egia esan, irakasleen behar formatiboak eta banakako beharrei erantzuna ematea erabaki da.

Helburuak zehazteko eredu teknologikoa jarraituko da, produktua ardatza izango da. Eredu honetan, prestakuntza prozesuak bukatutzat emango dira.

Helburu orokorra

- Irakasleak metodologia eta hezkuntza eredu berriak erabiltzeko gaitzea.

Berariazkoak

- Eskolako arazoan iturburuak identifikatzea, deskribatzea eta interpretatzea; eta ondoren, hauek ebaztea.

- Ikaskuntza Diseinu Unibertsala hezkuntza ereduaz azaltzea eta transmititzea

Operatiboak

- Talde tekniketan parte hartzea

- Taldeka Ikaskuntza Diseinu Unibertsalean oinarritutako ereduak sortzea

- Irakasleen prestakuntzan sakontzeko, metodologia aktiboak erabiltzea

Irakasleen kompetentziak

Gaitasunak, ezagutzak egoera eta testuinguru desberdinetan aplikatzeari egiten dio erreferentzia, arazo egoerei erantzun egokia emanez. Atal honetan, irakasleak garatu beharrekoak aurkezten dira. Gaitasunak garatzen dira eta diseinu honetan ondorengo moduan jasotzen dira:

- Arazo-egoerak ebazteko estrategiak erabiltzen ikastea, emango diren gatazkak konpontzeko.
- Klaseak egokitzen jakitea, ikasleen interesetara, beharretara eta errealitatera hurbiltzeko.
- Irakaslearen rola aldatzea, ikasleen ikaskuntza-prozesuen gidari bihurtzeko.
- Ikaskuntza Diseinu Unibertsala ereduaz ulertzea eta horren arabera unitate didaktikoak sortzea, ikasleei ahalik eta ikaskuntza bide gehien zabaltzeko.

Edukiak

Edukiak aukeratzeko materia eta irakasleak hartuko dira kontuan. Materiari dagokionez, gai adierazgarriak eta ikasgelatik kanpo orokortzeko gaitasuna dutenak hautatu dira. Irakasleei dagokienez, haien formakuntza mailara egokituak izan dira, oraingo arazoari aurre egiteko aukera emango dutenak, funtzionalak.

Diseinu honetan, irakasleak Ikaskuntza Diseinu Unibertsala (IDU) hezkuntza

ereduaren inguruan prestatuko dira. IDU ikasteko aukera didaktiko anitzak eskaintzen duen irakaskuntza-eredua da. Ikasleak ikasten ikasten dute, ikaskuntza-prozesuaren motibazioa handituz eta, beraz, beren bizitzetan ikasten jarraitzeko prest egonez.

Edukiak, IDU eredua bere osotasunean ulertzeko hautatu dira. Hauek izan dira esanguratsuenak:

- Eskola inklusiboa
- Etika
- Burmuinaren funtzionamendua
- IDU oinarritutako diseinuak egiteko ereduak eta txantiloak
- IDU sortzeko atalak: audioa, bideoa, irakurketa erraza, laguntza bisualak, funtzio betearazleak, errubrika, portfolioa, maila anitzak eta kooperazioa
- Baliabide teknologikoak /App:
 - ✓ Informazioa hautematea: *Youtube, Genially* eta *ATbar*.
 - ✓ Hizkuntza eta sinboloak: *DiktaPikto, Singlator* eta *WikiPicto*.
 - ✓ Ulermena: *Pixabay*, *Irakurketa Erraza* eta *Aurasma*.
 - ✓ Ekintzarako bitarteko fisikoak: *Pictogram Room, BigKeys* eta *Conmutador Digital*.
 - ✓ Adierazpena eta komunikazioa: *e-Mintza, LetMeTalk* eta *Dilo*.
 - ✓ Funtzio betearazleak: *Creately, Agenda Escolar* eta *Rutinas de Pensamiento*.
 - ✓ Autoerregulazioa: *Tempus, Piensa-Respira-Piensa* eta *Pictochart*.
 - ✓ Iraunkortasuna: *ClassDojo, Kahoot* eta *Socrative*.
 - ✓ Interesa: *Scratch, Pickers* eta *Classcraft*.

Formakuntza honetan landuko diren edukiak erabat lotuta egongo dira, diziplinarteko ikaskuntza sustatuz. Gaitasun, eduki, metodologian eta ebaluazioaren koordinazioa egongo da. Bestetik, edukien lanketa sekuentzia kontzentrikoan oinarrituko da, hau da, IDU abiapuntutzat hartuta, gainerako gaiak jorratuko dira. Edukiak irakaskuntza-eredua ulertzeko prestatuta daude, ondoren, irakasle bakoitzak bere mailara egokitutako eskolak egin ahal izateko.

Prestakuntza modalitatea

Prestakuntza modalitatea ikastaroa izango da. IDU azaltzean oinarrituko da, hau da, informazioaren transmisioan. Halaber, tailerraren kutsua hartuko du bukaeran. Izan ere, irakasleei IDU eredua jarraituz gai bat lantzeko prototipoa egiteko eskatuko zaie, ikastaroan zehar ikasitakoa aplikatuz.

Estrategia metodologikoa

Estrategi metodologikoei dagokienez, ikaskuntza aktiboa sustatuko da. Ikastaroaren atalean, hau da, informazioaren transmisioan oinarritutako metodologian, aurkikuntzazko metodoa jarraituko da. Ikastaroan, prestakuntza emango duenak orientatzailearen rola hartuko du, ikaskuntza gidatuz. Irakasleek, erantzunak topatu beharko dituzte ikasteko. Tailerraren atalean, hau da, ikaslearen jardueran oinarritutako metodologian, talde-ekipoko ikaskuntza sustatuko da. Metodologia honek parte-hartzea, erantzukizunak hartzea, motibatzea, jarreraren aldaketa eta abilezia konplexuen garapena ahalbidetzen du, besteak beste.

Irakasleen prestakuntza honetan, bidelaguntza, jarraipena eta ebaluazioa egingo da. Bidelaguntzaren atal honetan, ikerkuntza-ekintza metodoa jarraituko da, ikastetxeko egungo arazoari aurre egiteko metodo kolektibo eta praktikoa. Helburua, ikastetxeko funtzionamendua hobetzeko bide berriak ikastea izango

da, IDU sustatuz. Ikerkuntza-ekintza metodoak auto perfektionamendura bideratzen lagunduko ditu irakasleak. Praktikan oinarritzen den metodoa denez, ikastetxean dagoen kezka edo arazoa zehazteari eta horren inguruan hausnarketa egiteari eskainiko zaio lehenengo saioa. Saio berean, ekintzaren planifikazioa zehaztuko da: IDU eredia geletan erabiltzea. Hurrengo saioetan, plana aurrera eramango da. Orientatzaileak/aholkulariak ikastaroa emango du eta edukien transmisioa egongo da. Horrela, irakasleek informazioa jasoko dute. Behin saio teorikoak bukatuta, ikasitakoaren inguruko gogoeta bat egingo da eta irakasleak taldeka elkartuko dira. Talde bakoitzean, ziklo bakoitzeko tutoreak egongo dira. Irakasle espezifikokoak eta zuzendaritza taldekoak talde horietan sartuko dira ere, modu konpentsatuan talde bakoitzean pertsona kopuru bera egoteko. Bukatzeko, birplanifikazioa hasiko da. Atal hau tailerraren metodologiarekin lotuko da. Izan ere, talde bakoitzak IDU eredia erabiliz, gai bat lantzeko prototipoa sortu beharko du.

Prestakuntza metodoa eta teknikak

Prestakuntza saioetan zehar, hainbat produkzio teknika burutuko dira. Teknikak momentuan lortu nahi dugun helburuaren eta gaitasunaren arabera aukeratu dira, taldearen dimentsioa, heldutasuna, ezaugarriak eta nortasuna kontuan hartuz. Honez gain, testuingurua eta denboraren kudeaketa zaindu dira.

Ikerkuntza-ekintza metodoan, kooperaziorako, hausnarketarako/ebaluaziorako, parte-hartzeko eta, transmisiorako eta transferentziarako espazioa egongo da. Ondorioz, momentu bakoitzerako teknika desberdinak hautatu dira. Esaterako: hasierako saioan egingo den hausnarketan, *Phillips 66* talde teknika erabiliko da. Teknika honi esker, irakasle guztien iritzia jasoko da, guztien parte-hartzea sustatuz. Horretarako, klaustro osoa 6 pertsonetako azpitaldeetan banatuko dugu, eskolan dagoen arazoaren inguruan 6 minutuz eztabaidatzeko eta ondorio batera iristeko. Ondoren, talde bakoitzeko idazkariak edo bozeramaileak talde handian partekatuko du sortutako informea.

Ikastaroa bukatu osteko gogoetan, *Foroaren teknika* erabiliko da. Klaustroak gai edo arazo baten inguruan hitz egingo du, orientatzaileak teknika hau bideratuz. Foroak irakasle guztien ideien eta iritzien adierazpen librea ahalbidetuko du, mugatze minimoko klima informal batean. Koordinatzaileak errespetatu behar diren alderdiak zehaztu beharko ditu, adibidez, interbentzioen denbora laburra, objetibotasuna eta elkarrekiko errespetua. Foroaren denbora ordu betekoa ezarriko da eta ikasitako eredu berrien inguruan hausnartzeko eta ikastetxean praktikara eramateko moduak bilatzeko erabiliko da.

Baliabideak

Formakuntzaren bitartekaria aukeratzeko irizpide batzuk jarraitu dira. Bitartekariari esker, ikastetxeko irakasleek IDU ereduaren inguruko formakuntza jasotzea espero da.

Kanpo agente bat hautatzea erabaki da, haien arteko konfiantzak edo aurretiko arazoen izan dezaketen eragina ekiditeko. Ikastetxera etorriko den pertsona aditua izan behar da hezkuntzan eta metodologia berritzaileak ezagutu behar ditu. Prestakuntzak egitera ohituta dagoen pertsona izatea komenigarria da, talde handiekin lan egiten ondo moldatzen dena. Komunikatzaile ona izatea garrantzitsua da ere.

Ikastetxea Euskadin egongo balitz, prestakuntza Berritzeguneari eskatuko litzaioke. Horretarako, eskolako kontsultoreak Berritzeguneko etapako aholkularitzarekin harremanetan jarri daiteke. Etapako aholkulariak ikastetxeak

dituen formakuntza orduetan (2 ordu astero) etorriko dira. Ikastaroa, hau da, saio teorikoa ikastetxean bertan egingo dute.

Ondorengo tailerraren zereginak, ordea, Berritzegunetik gidatuko dituzte. Irakasleek eskolan bertan lan egingo dute taldeka eta Berritzegunekoekin bi edo hiru astetan behin elkartuko dira. Talde bakoitzak bere IDU erudian prestatutakoa aurkezteko 2 hilabete izango ditu, tailerra hasten den egunetik.

Baltimor hiriko ikastetxean, bitartekariak ordainduko dira, kanpo agente bat etortzea erabaki delako. Zuzendaritza taldea ados egotekotan, kontsultorearekin batera prestakuntza bilatuko dute.

Eszenatokia

Prestakuntza emateko espazioa eskolako aretoa edo irakasle gela izango da. Espazioa ondo antolatzea oso garrantzitsua da komunikazio egokia emateko. Saio bakoitzaren beharren arabera, eszenatokia aldatu egingo da. Mahaiak eta aulkiak erabiliko dira, beraz, erraztasunez mugitzeko aukera izatea ondo legoke, adibidez, gurpilak izatea. *Phillips 66* eta *foroa* egingo diren saioetan, sistema zirkularrean antolatuko dira mahaiak eta aulkiak. *Phillips 66* teknikaren lehenengo atalean, 6 pertsonetako azpitaldeak sortu behar direnean, aulkiak mugituko dira bakarrik. Sistema zirkularrari esker, haien artean ikusteko aukera izango dute, baita formatzaileak arbelan edo pantailan adierazitakoak ere. Era berean, ikastaroaren atalean, sistema zirkularra edota U sistema erabiliko dira eszenatokia antolatzeko. Esan bezala, formatzailea eta pantailak ikusteko, baita partaideen artean komunikazioa errazteko ere. Tailerraren atalean, ordea, taldeka lan egingo dutenez talde lana sistema jarraituko dute. Mahaiak eta aulkiak taldeka batuko dituzte eta formatzailea taldez talde mugituko da.

Prestakuntza ebaluatzen

Prestakuntza hau ebaluatzeko erreferente batzuk kontuan izango dira, hain zuzen ere, Hezkuntza politikara, testuingurura, lege eta hastapen psikopedagogikoetara eta parte-hartzaileetara egokituta egotea. Ebaluazioa lau ataletan banatzea erabaki da: hasierako ebaluazioa, etengabeko ebaluazioa, amaierako ebaluazioa eta denbora bat pasa eta geroko ebaluazioa.

Hasierako ebaluazioan, galdera-sorta baten bidez irakasleek landuko diren edukien inguruan dituzten aurre jakintzak jasoko dira. Horri esker, prestatzaileak edukiak egokitzeko abiapuntua izango du. Ebaluazio hau prestakuntzaren bukaeran egingo da berriz. Sistema kuantitatiboa izango da, eta honi esker, prestatzaileak ikasketa prozesua eraginkorra izan den ebaluatu ahal izango du. Era berean, bakoitzak bere prozesua noraino izan den eraginkorra ikusteko aukera izango du.

Prestatzaileak, etengabeko ebaluazioa eramango du aurrera. Behaketa eta elkarrizketen bidez, landa-lanaren kutsua izango duen egunerokoa beteko du prestakuntzan zehar. Jasoko diren oharrak kualitatiboak izango dira, prestatzailearen irizpide subjektiboen araberrakoak. Hala ere, jasotako datuak sailkatu dira eta, horri esker egoera diagnostikatu egingo da, esate baterako, beharrak eta arazoak identifikatzea eta helburu berriak zehaztea.

Amaieran, prestakuntzaren diseinuarekin lotutako norberaren poztasun maila eta prestakuntzaren kalitatea ebaluatuko da: antolaketa, metodologia, teknikak, aplikagarritasuna, formatzaileak eta parte-hartzea. Ebaluazioaren helburua etorkizuneko prestakuntza saioak hobetzea izango da. Esan bezala, amaieran egingo da, azken saioaren bukaerako 15 minutuetan. Asebetetze maila ebaluatzeko galdeketak erabiliko dira, prestatzaileari eta ikasleei (irakasleei)

zuzendutakoak. Galdeketetan item batzuk egongo dira 0tik 5era puntuatzeko. Parte hartzaile guztien erantzunen artean, batez besteko emaitza aterako da, ebaluazioa kuantitatiboa izanez.

Denbora bat pasa eta gero, 3 hilabete baino gehiago, irakasleek inkesta bat beteko dute. Inkestak prestakuntzaren eraginkortasuna denboran zehar mantentzen den ebaluatuko du. Irakasle bakoitzak inkesta beteko du eta modu kualitatiboan eta kuantitatiboan aztertuko da.

Prestatzaileak ebaluazio mota guztietan jasotako datuak analizatu eta aztertuko ditu. Ostean, irakasleei emaitzak jakinaraziko dizkie hausnarketa egin dezaten.

Erreferentzi bibliografikoak

ALBA, C. (2012). **Aportaciones del Diseño Universal para el Aprendizaje y de los materiales digitales en el logro de una enseñanza accesible.** J. Navarro, M^a T. Fernández, F.J. Soto, eta F. Tortosa (koord.) (2012). *Respuestas flexibles en contextos educativos diversos.* **Formación y Empleo.**

BIRKENBIHL, M. (2007). **Formación de formadores.** Pirámide.

BURGSTHALER, S. (2011). *Universal Design: process, principles and applications.* DO-IT,

MOLINA-HURTADO, Y. A., eta MORENO-CELY, C. P. (2016). La esencia de la **formación de formadores en el contexto de la educación a distancia.** *Praxis*, 12, 111-117.

TEJADA, J. eta GIMÉNEZ, T. (2007). **Formación de formadores.** Thomson.